

GOBIERNO DE NAVARRA

ECONOMÍA, HACIENDA, INDUSTRIA Y EMPLEO

CULTURA, TURISMO Y RELACIONES INSTITUCIONALES

PRESIDENCIA, JUSTICIA E INTERIOR

EDUCACION

DESARROLLO RURAL, MEDIO AMBIENTE, Y ADMINISTRACIÓN LOCAL

SALUD

POLÍTICAS SOCIALES

FOMENTO

SEGURIDAD Y EMERGENCIAS

Tuterako katedraleko klaustroa zaharberritzeko bigarren fasea hasiko da 600.000 euroko inbertsioarekin

Kapitelen hondatzea konponduko duen proiektua ostegun honetan aurkeztu dute Barcina Lehendakariak eta "la Caixa"-ko Nafarroako lurralde-zuzendariak

Jueves, 16 de enero de 2014

Tuterako Santa Maria katedraleko klaustroa zaharberritzeko bigarren fasea aurreburutuko da, Nafarroako Gobernuaren eta "la Caixa" Gizarte Ekintzaren artean lortutako akordioaren arabera. Horrenbestez, atariko kapitelen duten kontserbazio-arazo larriak konponduko dira.

600.000 euroko aurrekontua duen jardueraren xehetasuna ostegun honetan aurkeztu dute Nafarroako Lehendakari Yolanda Barcinak eta "la Caixa"-ko Nafarroa, Aragoi eta Errioxako lurralde-zuzendari Raúl Marqueta-k, Tuterako tenpluan egin den ekitaldian.

Zehazki, atariko kasetoidura, kapitelen eta arkutaria konponduko dira, Kristoren Eskolako kapera zaharberrituko da eta klaustroko lorategia egokituko. Gainera, zolaren aireztatzea hobetuko da, inguruko hormak garbitu eta konponduko dira eta klaustroko arotzerian, instalazio elektrikoan eta argietan lanak egingo dira. Lan horiek guztiak Nafarroako Ondare Historikoa Kontserbatzeko Fundazioak egikarituko ditu.

Gaur egun, klaustroko kapitelen kontserbazio-arazo larriak ditu, bertako estalkiko isurialde triangularrak hondatuta daude, eta hegoaldeko geletako estalki nahiz forjaketen zati handi bat aurre-egoeran daude, zenbait puntu hondoratuta eta eskoramendu nahiz sendotze batzuk eginda, eta hormak ere kaltetuta daude.

Bigarren fase hori iaz lehenengoa egikaritu ondoren dator, 630.460



Agintariak Tuterako katedraleko klaustroaren obrak bisitatzen.



Agintariak Tuterako katedraleko klaustroan.

euroko inbertsioarekin. Lehen jarduera horrek hondatutako estalkia konpondu zuen ur-sartzeak gelditzeko asmoz eta, hala, kapitelen babes-baldintzak hobetzeko.

Bigarren fase horretako aurkezpenean bigarren lehendakariorde eta Kultura, Turismo eta Erakundeekiko Harremanetarako kontseilari Juan Luis Sánchez de Muniáin izan da; Tuterako katedraleko dean Bibiano Esparza; hiriko alkate Luis Casado eta obraren arkitekto Leopoldo Gil.

Tuterako katedrala

Tuterako katedrala Nafarroako eraikin historiko aipagarrienetako bat da, alde batetik, tenpluak eta bertako gelek duten interes arkitektonikoagatik, eta bestetik bertan dauden ondasun finko eta altzariengatik, bai eta guztiaren dimentsioengatik ere. XIX. mendean monumentu nazional izendatu ziren Nafarroako lehen eraikinetako bat da eta, harrezkero, zaharberritze eta kontserbazioko zenbait obraren xede izan da.

Dimentsio handiko tenplu tardoerromatar zistertarra da, eta XII. mendearen amaieran eraikitzen hasi ziren. Tuterako meskita nagusiko zimendu batzuk erabili zituen (IX. mendetik XI.era), tenplu berria eraitzeko eraitsi zena.

Katedralean egindako azken zaharberritze-lanak 2002 eta 2006 artean egin ziren Nafarroako Ondare Historikoa Kontserbatzeko Fundazioak sustatuta, Nafarroako Gobernuaren eta Caja Navarra Fundazioaren ekarpen ekonomikoekin. Tenpluaren barnealdean egin ziren lanak, jarduerak eginez Espiritu Santu kaperan, burualdeko geletan eta mendebaldeko fatxadaren alboan dagoen etxean. 9.292.876,07 euro inbertitu ziren bertan.